



Arartekoaren 2019R-2326-18 Ebazpena, 2019ko azaroaren 5koa. Horren bitartez, Durangoko Udalari gomendatzen zaio itzul dezala errekararekin igorritako kuota bat, hain zuzen ere 2017ko iraileko ikastaro bati zegokiona.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, eta horren bidez azaldu zuen ez zettorrela bat Durango Kirolak erakunde autonomoaren funtzionamenduari eta haren instalazioetan egiten diren ikastaroetako parte-hartzaileei lotutako erregulazio ezarekin.

Kexagileak adierazi du bere alaba adingabeak, 2016-2017ko ekitaldian, ikastaro batean hartu zuela parte. Hura 2017ko ekainean amaitu zen, eta interesdunak ordura arte, hau da, 2017ko ekainaren 30era arte, ordaindu zuen zegokion hileko kuota. Abuztuaren amaieran, 2017ko irailari zegokion kuota jaso zuen, alabak 2017-2018 ikasturterako jarduera horretan izena eman ez bazuen ere. Hortaz, ordainagiria itzuli zuen, eta zenbateko hori kobratu izanaren aurkako erreklamazioa aurkeztu zuen, uste baitzuen ikasturtea amaitutakoan automatikoki eman behar ziotela baja zerbitzuan.

Kexagileak erreklamazio-idazki bat aurkeztu zuen 2017ko abuztuaren 30ean, eta Durango Kirolak (aurrerantzean, DK) kudeatzaileak 2017ko urriaren 23an erantzun zion. Kexagileak jaso duen erantzunean, DK-k adierazi du jarduera gehienak ez direla denboraldikoak, jarraituak baizik. Erakunde horren esanetan, uztailan eta abuztuan jarduera ez emateak ez dakar irailerako plaza galtzea, eta hori abantaila handia da jarraitzen duten pertsonentzat.

2018ko urtarrilaren 26an, interesdunak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen alaba adingabeari jakinarazitako 145/2018DB premiamendu-probidentziaren aurka. 2018ko ekainaren 6ko 2018/1095 Alkatetza Dekretuaren bidez eman zen ebazpenean, berraztertze errekurtsoa ezestekoan, berriz ere azaldu ziren interesdunari hasieran helarazitako argudioak, hain zuzen ere ordaindu behar zuela adierazten zutenak. Ebazpen horren bidez, zerbitzuaren baja-araubideari lotutako erregulazio berezirik ez zegoen alegazioari erantzun zitzaion, *Kirol instalazioen erabiltzaileentzat araudi orokorra eta instalazioen erabilera-araudia* izeneko agirian jasotako erregulazio bereziaren berri eman zen, eta berariaz aipatu ziren mahaigaineratutako kasuari aplikatu zekizkiokeen artikulak.

2. Arartekoak kexaren xedea aztertu zuen, eta, horren ondoren, informazioa eskatu zion Durangoko Udalari. Horrez gain, kasu honetan baliatutako prozedurari eta aplikatzekoa den udal-erregulazioari buruzko lehenengo analisiaren berri eman genion udal horri —hurrengo atalean, gogoetegi buruzkoan, garatuko ditugu kontu horiek—.





3. Durangoko Udalak, gure informazio-eskaerari erantzunez, DK-ko gerenteak egindako txostena aurkeztu zuen. Testu horren edukia ere hurrengo atalean aztertuko dugu.
4. Horren ondoren, Arartekoak DK-ren erantzuna kexagileari bidali zion, hura egiaztatzeko. Interesdunak berriz ere erreklamatu zuen hartutako erabakia ez zegoela babestuta ez udal-erregulazioan ez jaso zuen ikastaroari buruzko liburuxkan. Azkenik, kexagileak nabarmendu zuen DK-k ez ziola erantzun kexa eragin zuten arrazoietak bati, honako honi hain zuzen: DK-k premiamendu-probidentzia alabari bidali izana, adingabea zela jakiteko datuak bazituen ere.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, kexan azaldu diren formari lotutako kontuei dagokienez, gogorarazi beharra dago interesdunak jaso zuen Durango Kirolakene kudeatzailetzaren komunikazioan –2017ko abuztuaren 30eko erreklamazioari erantzun ziona– ez zirela ageri administrazio-egintza orok izan beharreko funtsezko elementuak. Horri lotuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 88. artikulua hirugarren apartatuak hauxe dio:

“Ebazpenean, erabakia jaso behar da, eta erabaki arrazoitua izan behar du 35. artikuluan aipatutako kasuetan. Horrez gain, ebazpenetan jaso behar da zer errekurso aurkeztu daitezkeen haren aurka, zer administrazio-organori edo organo judizialari aurkeztu behar zaizkion eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki irizitako beste errekurtsoren bat aurkezteko aukera.”

Zerbitzua kudeatzen duen entitatea erakunde autonomoa izateak ez du aldatzen administrazio-prozeduraren baldintzak bete beharra, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanetan haien eskubideak babesten direla bermatzeko administrazioak bere jarduerari ekin eta zuzenean eragiten duenean herritarren esfera juridikoan.

Artikulu horren arabera ebazpenek, guztiz eraginkorrak izan daitezzen, bete behar dituzten betekizunetatik nabarmentzekoa da administrazio-egintza arrazoitu beharra. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35. artikulua ezartzen du arrazoitu egin behar direla, besteak beste, administrazio-prozedurak edo -errekursoak ebazten dituzten egintzak, egitateen eta **zuzenbideko oinarrien** aipamen laburra eginez. DKren 2017ko urriaren 23ko “komunikazioa”n, zeinetan ezartzen baitzen ez zela bidezkoa kobratutako zenbatekoa itzultzea, behar bezala arrazoitu beharko zatekeen zergatik eman zen ezezkoa, bereziki aipatuz udal-erregulazioa eta aplikatzekoak ziren artikulua, zehazki ikastaroen edo jardueren erabiltzaileek parte hartzeko baldintzei zegokienez.



Araudi aplikagarria eta erreklamaturako egintzari begira egindako haren interpretazioa lehenengoz aipatu ziren interesdunak 145/2018DB premiamendu-probidentziaren (ordaintzeko betebeharrari buruzkoa) aurka 2018ko urtarrilaren 26an aurkeztu zuen berraztertze errekurtsoa ezesteko ebazpenean. Aitzitik, *Kirol instalazioen erabiltzaileentzat araudi orokorra eta instalazioen erabilera-araudia* izeneko testuaren –177. BAO, 2017ko irailaren 15ekoan, argitaratua (aurrerantzean 2017ko araudia)– 1.3.5. artikulua aipatu zen ebazpenean, eta suertatu zen ez araudia ez aipaturako artikulua ez zirela aplikatzekoak aztergai dugun kasuari, ondoren aztertuko dugun moduan.

DK-k, kontu hori dela-eta erakunde honi emandako erantzunean, aitortu zuen orduan indarrean zegoen *Kirol instalazioen erabiltzaileentzat araudi orokorra eta instalazioen erabilera-araudia* (aurrerantzean, 2013ko araudia) zela, hain zuzen ere, salatutako egitatei aplikatzekoa zen erregulazioa. Testu hori 2012ko abenduaren 12an onetsi zen behin betiko, eta 50. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2013ko martxoaren 12koan, argitaratu zen. Badirudi aurreko erregulazioan eta gaur egun indarrean denean alde txikia dagoela hizpide dugun kontuari dagokionez. Nolanahi ere, egia esanda, eztabaidaren xedea ebazteko orduan nabarmenak izan daitezkeen zenbait desberdintasun hauteman daitezke.

2. Jarraian, zehatz aztertuko da gai honen inguruko udal-erregulazioa. Halaber, xehetasunez jorratuko da 2017ko iraileko ordainagiria ordaindu beharra DK-k eskatu bezala; izan ere, kexagilearen alabak ikastaroa 2017ko ekainean amaitu arren, erakunde horren iritziz, irailean zurbako ikastaroarekin jarraitzeari zegokion ordainagiria ordaindu behar zuen, ez zuelako behar adinako aurrerapenez baja eman.

Interesdunaren alabak ustez 2017ko abuztuaren 26a baino lehen bete beharko zukeen betebeharrari dagozkio eztabaida eragin duten egitateak; data horretan 2013ko araudia zen aplikatzekoa. 2013ko testuaren ordean indarrean jarri zen araudia 2017ko ekainaren 27an onetsi bazen ere, 2017ko irailaren 15eko BAO, argitaratu zen, eta argitaratu eta 15 egun balioudunera jarri zen indarrean (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikulua).

2013ko araudiaren 1.1. artikuluan, bost **erabiltzaile**-mota bereizten dira. Horiek horrela, interesatzen zaizkigun ondorioetarako, **abonatua** da instalazioetara abonatuta egonik ordainketa eguneratuta daukan pertsona; bestetik, pertsona **librea** da ez abonatua ez Kirol Eskoletako ikaslea ez den erabiltzailea izanik, dagokion alogera edo prezio publikoa ordainduta, instalazioak erabiltzen dituen pertsona. Beraz, kexak hizpide duen zerbitzuaren erabiltzailea ez zen abonatua.

2013ko araudiaren 1.3. artikulua **abonatuak** ditu hizpide, eta, hortaz, ez da aplikatzekoa kexaren xede den kasuari, pertsona hori erabiltzailea delako baina ez abonatua. Araudi horren 5. atalak hau ezartzen du: *“Abonatu izateari utzi nahi dion pertsonak honako bide hauek erabil ditzake horren berri emateko:*



instalazioetara bertara joanda, telefonoz, faxez, posta arruntez edo posta elektronikoz. Jakinarazpena abonu-aldia amaitu baino gutxienez bost egun natural lehenago egin behar du. Hala egiten ez bada, hurrengo aldian ere abonatu izaten jarraitu nahi duela ulertuko da.”

Abonatuentzako xedapen horrek zentzua du; izan ere, edonork uler dezake pertsona batek mota horretako zerbitzu batean alta ematen duela, han izena emanda jarraitzeko harik eta araudiaren arabera baja izapidetzen duen arte.

2017ko araudian, zenbait aldaketa egin dira aipatutako alderdiei dagokienez. 1.1. atalean, hiru kategoria bakarrik ageri dira, eta, zehazki, hau ezartzen da:

“Norbanako erabiltzaileak

Hauexek:

- Igerilekuetako instalazioetan abonatuta dauden pertsonak.*
- Jarduera edo ikastaroetan izena emanda dauden pertsonak.*
- Instalazioak erabili, alokatu, edo tarteka jarduerak egiten dituzten pertsonak, kasuan kasuko prezio publikoa ordainduta.”*

Beraz, erregulazio berrian ez dira bereizten abonatu eta pertsona libre kategoriak; aitzitik, pertsona guztiak hartzen dira erabiltzailetzat, beste kalifikatzaileerik erabili gabe. Azaldutakoarekin bat, araudi berriaren 1.3. artikulua **erabiltzaileei** buruz dihardu. Hala ere, 5. atalak —hautsi omen denak— honako hau xedatzen du oraindik ere: *“Abonatu izateari utzi nahi dion pertsonak, bide hauek erabil ditzake horren berri emateko: tramiteetarako kutxazaina, webgunea, eta, DK-ko harrera (bertaratuta, telefonoz edo whatsapp bidez), jakinarazpena abonu-aldia amaitu aurreko hilabeteko 26.eguna baino lehenago egin behar da.”* Hau da, entitateak kuota likidatzeko oinarri gisa aipatutako artikulua hori ere ez litzateke aplikatzekoa izango ikastaro baten hileko kuotari, argi baitago abonatuei buruz ari dela, eta ez da hori kexagilearen alabaren kasua.

Analisi hori osatze aldera, azpimarratu beharra dago 2018ko ekainaren 6ko ebazpena —premiamentu-probidentziaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezetsi zuena— eman arte ez zirela aipatu 2017ko araudiaren 1.3.5. eta 1.5.4. artikulua. Nolanahi ere, 2013ko araudian ez dago azken artikulua horren pareko den atalik, eta, gainera, bi artikulua horiek abonatuak dituzte hizpide.

Azkenik, Arartekoaren informazio-eskaerari erantzunez bidalitako idazkian aipatu du DK-k 2013ko araudiaren 3. artikulua. Haren edukia hurrengo atalean aztertuko dugu, erantzunean emandako azalpenekin batera.

Laburbilduz, interesdunari babesgabetasun handia eragiten dio ez jakiteak zer erregulaziotan oinarrituko den administrazioa 2017ko iraileko ordainagiria ordainarazteko (lehenengo erreklamazioari erantzunez bidalitako idazkia).



Horrez gain, premiamendu-probidentziaren aurkako berraztertze errekurtsoa ezeste aldera ondoren eman zen ebazpena ere ez da oinarri nahikoa hartutako erabakia justifikatzeko, ezin zaiolako aplikatu aztergai dugun kasuari eta aipatutako artikuluek ere ez dutelako babesten kexaren xede den kasua.

3. Behin argudioak azalduta, jo daiteke DK-k erreklamaturako ordainketa ez datorrela bat legeriarekin. Hala ere, jarraian aztertuko dugu zer erantzun eman dizkien erakunde autonomoak bai interesdunari bai erakunde honi, programatzen dituzten ikastaroen ezaugarriei buruz eta erabiltzaileen betebeharrei buruz.

2013ko araudiaren 3. artikulua izenburua "KIROLETAKO IKASTAROAK ETA KANPAINAK" da, eta 1. apartatuak xedatzen du, kirol-jarduera sustatzeko kiroletako ikastaroak eta kanpainak antolatuko dituela urtero DK-k, eta haien eskaintza herritar guztiei zuzendurikoa izango dela. 3. apartatuak, berriz, hauxe dio: *"Oro har, ikastaroak urte osoan izango dira, eta ahal den heinean, eskaeraren arabera izango dira."*

Azkenik, artikuluko 6. apartatuak honako hau ezartzen du:

"Plaza hutsak baldin badaude, edozein unetan eman ahal izango da izena, eta jarduerak dirauen bitartean iraungo du hark ere. Baten batek baja izan nahi badu, aurreko hileko 26. eguna baino lehenago egin beharko du (azken eguna, aurreko hileko 25a)."

Horren harira, udalari helarazitako informazio-eskaeran, Arartekoak azpimarratu zuen hizpide dugun ikastaroa ekainean amaitu zela, eta, beraz, adierazitakoa ez zela zuzena, ez bada Durango Kirolak berariazko beste erregulazio osagarri bat, behar bezala zabalduz, erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren ingurukoa. Kasu honetan, jarduera ekainean amaitu zen, eta, beraz, jo daiteke interesdunaren alta-egoera ez dela mugagabea, baizik eta aldi baterakoa, ikastaroa amaitu artekoa, jarduera hori eten egin delako bi hilabetez gutxienez.

Laburbilduz, erakunde honen ustez, jarduera ekainean amaitu zenez, ez zegoen hura isilbidez berrituz baldin eta ez bazen beste izen-emate bat irekitzen tarifaren aldizkako kobrantza berrabiarazteko, hau da, ez zegoen oinarri ikastaroa automatikoki berriz hasteko.

DKren erantzunean nabarmendu da Arartekoak *"...parte de una premisa errónea de que la planificación de las actividades de Durango Kirolak se estructuran a través de "cursos" que se relacionan análogamente con los períodos del ámbito educativo (meses septiembre-junio)."*

Horrez gain, hauxe dio jasotako erantzunak: *"Que, por el contrario, el alta en la prestación del servicio deportivo de zumba se constituye como un alta anual en la actividad de manera indefinida y no en el curso académico..."*.



Interpretazio hori babesteko, 3. artikulua 3. eta 6. apartatuak —aurretik jaso ditugunak— aipatu dira.

Hori dela eta, DK-k ondorioztatu du izena emateak kirol-zerbitzuei etengabe atxikitzea dakarrela, eta ez dela berriaz berri behar uztaila eta abuztua igarotakoan (oporak direla-eta, hilabete horietan ez da zerbitzurik ematen). Erakunde horren arabera, erabiltzaileak zerbitzuak eten nahi baldin badu, araudian ezarritako epe-mugaren barruan jakinarazi behar du, eta, hortaz, erabiltzaileak ez zuenez izapide hori egin, zerbitzuan alta emanda zegoen, eta iraileko zerbitzuagatik ordainagiria igorri izana bat dator aplikatzekoa den araudiarekin.

Arartekoaren iritziz, ez zaigunez mota horretako jardueretarako berriazko beste erregulaziorik helarazi, hala egiteko eskatu bagenuen ere, jo beharra dago aipatutakoa dela gai honen inguruko erregulazio bakarra, hau da, 3. artikuluko 3. eta 6. apartatuak, eta hari heldu behar diogu zehazteko aipatutako erregulazioak babesten ote duen erakunde autonomoak ordainagiri bat igortzea azaldutako inguruabarretan. Alde batetik, hirugarren apartatuko xedapenaren arabera, ikastaroak, oro har, urte osokoak izango dira. Gainera, urte osokoak ez diren ikastaroak egin daitezkeela xedatzen du berriaz. Beste alde batetik, izen-ematea mugagabea izateak esan nahi du jarduerak dirauen bitartean iraungo duela.

Horrenbestez, ondorioztatzen da ikastaroak ekainera arte irauten zuela, jarduera orduan amaitu zen-eta. Uztailean eta abuztuan zerbitzu hori emateari uzten zaio, eta, ondore horietarako, ez du axola zergatik ez diren ematen eta ordaintzen jarduerak. Alegia, bi hilabetezko etenaldi horrek adierazten du ikastaroa ez dela ez mugagabea ez urte osokoa. Ondore horietarako, Espainiako Errege Akademiaren arabera, mugagabea (*indefinido*) da adierazitako edo definitutako amaierarik ez duena, eta urtekoa (*anual*), berriz, urtebete irauten duena.

DK-k, eskaintzen dituen ikastaroen zerbitzua antolatzeari eta emateari dagokionez, duen funtzionatzeko modua eraginkorra eta are onuragarria ere izan daiteke urte batetik bestera ikastaroetan izena emanda jarraitu nahi duten erabiltzaile gehienentzat, beste izapiderik egin behar ez dutelako. Hala ere, jokabide hori ez dago oinarrituta aztertu dugun erregulazioan; izan ere, horretarako, zehaztu beharko zatekeen ikastaroak uztailean eta abuztuan eten arren jarduerak mugagabetzat eta urte osokotzat hartzen direla erabiltzaileen eskubideen eta betebeharren ondoretarako, eta, hortaz, jardueran izena emanda jarraitu nahi ez dutenek, udaren ondoren, berriaz eman behar dutela baja.

Azaldutakoaz gain, nabarmentzekoa da erabiltzaileek automatikoki jarraitzen dutela urtez batetik bestera programatutako ikastaroetan izena emanda, denboraldi bakoitzaren hasieran izena aurretik emateko edo (eskariaren arabera) onartzeko prozedurarik egin gabe. Jo liteke jarduera batean mugarik





gabe izena emanda egotea diskriminatzailea dela, eta, beraz, ez datorrela bat ikastaro baterako dagoen eskaria eskaintza baino handiagoa denean pertsona guztiek zerbitzu publikoak eskaintzen dituen jardueraz gozatzeko eskubidearekin. Hortaz, denboraldi batean plaza dutenen izen-ematea automatikoki berritzeak ez luke esan behar hurrengo denboraldirako plaza eskuratzeko eskubidea dutenik.

Izan ere, beste zerbitzu publiko batzuek horren inguruko berariazko arauak dituzte. Esate baterako, Bilbao Kirolakek izen-emateen eta berritzeko eskaeren arabera egiten du denboraldi bakoitzerako plaza-atxikipena. Berritzeak, ordainketa helbideratuen alde egiten dutenentzat (abonatuak bakarrik) automatikoak izango dira, ekainera arte, hilabete hori barne. Era berean, Etxebarriko Udalak aurreinskripziorako egutegi bat du aurreikusita, baita denboraldi bakoitzeko ikastaroen deialdirako zerrendak onartzekoa ere.

Ondorioz, DK-k interesdunaren alaba adingabearen 2017ko iraileko kirol-jarduera bat zela-eta igorritako kuota itzuli behar dio interesdunari, likidatutako eta kobratutako errekaruak eta interesak barne.

4. Azkenik, premiamendu-probidentzia zuzenean alaba adingabeari likidatu izanari dagokionez, 2013ko araudiaren 2.1.3. artikulua xedatzen du erabiltzaile adingabeen kasuan gurasoak edo legezko tutoreak izango direla prezioen ordainketaren azken erantzule. Kasu honetan, baina, ez zen xedapena bete, premiamendu-probidentzia alaba adingabearen izenean igorri zen-eta.

Nolanahi ere, zergei buruzko araudiaren aplikazioaren testuinguruan, ez da beharrezkotzat jotzen sakon aztertzea ez premiamendu-probidentzian azaldutako kontuak ez kexagileak aurkeztutako berraztertze errekurtsoaren ezespena, iruditzen baitzaigu aurreko gogoetetan azaldutako argudioak nahikoak direla ondorioztatzeko bidezkoa dela kexagileak eskatutakoa betetzea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Dagozkion izapideak egin ondoren, itzul diezaiola kexagileari 2017ko iraileko ikastaro bat dela-eta igorritako kuota, likidatutako errekaruak eta gainerako kontzeptuak barne.

